

**INGURUMENA.** Ekologistek gura leukie erakusleihen berdea baino gehiago izatea biharkoa

# Bilboko bidaia guztien laurena baino ez da auto pribauetan egiten

Ekologistak Martxan taldeak 'Bilbo nire auto barik' egunerako egitarau propioa gertatu dau



XOUSE SIMAL  
Bihar be, Bilboko hainbat kale egongo dira motordun ibilgailu barik.

Mikel Basabe |

Ekologistak Martxan taldeak *Bilbo nire auto barik* egunerako antolatu dituan ekitaldien barri emon eban atzo: *Bilboaldeko trafikoaren urtenbideaz* gaur egingo dan mahai inguruagaz batera, biharko, Bilbon auto bako eguna egingo dan egunerako, jai egitaraua antolatu dabe ekologistek: Areatzan izango da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, umeendako jolasak, alkartasun azokea, antzerkia, mimoa, eta fanfarria bat egongo dira. 19:30etatik aurrera, ostera, bizikleta martxea Auto barik hobe lelopean, eta ordu bi geroago, Kafe antzokian, herri afaria. Jaia amaitzeko, bertsolariak, trikitalariak, eta Perro Flauta taldearen kontzertua izango dira entzungai.

## Erakusleihoa baino gehiago

Taldeak antolatuturiko jai egitarauaren aurkezpenagaz batera, Ekologistak Martxan taldeak Udalak antolatuturiko egunaren ganean daukan eritxia emoteko aprobeaxau eban atzoko prentsaurrean egindako agerraldia. Iñaki Barcena taldekideak esandakoaren arabera, «autorik bako egunak erakusleihen berdea, erakundeen irudi ekologis-

## IÑAKI BARCENA

Ekologistak Martxan-eko kidea

«Urtean zehar, Bilbon ezer gitxi egin izan da trafikoaren arazoari urtenbidea emoteko»

## JON TORRE

Ekologistak Martxan-eko kidea

«Trafikoa da Bilbok, Euskal Herriko uririk handienak, gaur egun daukan ingurumen arazo larriena»

## AUTO BAKO EGUNA

### Egitarau ofizialeko 'bitxiak'

Ekologistak Martxan taldeko kideek Bilboko Udalaren egitarauaren ganean be egin eben berba, atzo. Iñaki Barcenak esandakoaren arabera, «Europako Batasunak auto bako eguna antolatzeke ipini dituan gitxieneke baldintzak beteteko borondatea eta gogoa dauka Bilboko Udalak». Ekologistek «ondo» eritxi eutsien auto bako eguna barikuan egiteari. Baina kritikea be egin eutsien egitarau ofizialari. «Ez da zentzuzkoa», zehaztu eban Barcenak, «autorik ez erabilteko eguna antolatzea, eta, egun horren egitarauaren barruan, norberaren autoak eragiten dauen kutsadurea neurtzeko aukerea dohainik emotea... Bilbon; horrek autoa ekartera gonbidatzen dau».

Dana dala, Udaleko agintariei eginiko kritikarik zorrotzena «ingurumen arazoetarako Udalean dagoan batzordean eginiko proposamenak aintzat hartu ez izana» da. Barcenak esan eban, «auto bako eguna urtean zehar auzoetan antolatzea proposatu zan, eta ez eben onartu. Gauza bera gertatu zan auto bako eguna eskoletan lantzeko ideiaz, edo biharko ekitaldiak Deustuan be egiteko asmoagaz».

## EGITARAUA

### GAUR, HILAK 20

**19:30:** Bilboko Zazpikaleetako Pelota kaleko 5ean dagoan Ekoetxean *Bilboaldeko trafikoaren irtenbideaz* mahai inguru egingo dabe: EH-ko kide eta Batzar Nagusietako kide Txama Piko, Bilboko Udaleko Trafiko zinegotzi Isabel Sanchez, Deustuko Zubi Artean alkatere Pedro Mier eta Biziz Bizi txirrindulari taldeko kide bat.

### BIHAR, HILAK 21

**17:00:** Umeendako jolasak: puzgarriak, globoflexia, herri kirolak... Antzerkia, mimoa eta fanfarria be egongo dira, eta ailaritasun azokea. Hori guztiori Areatzan egingo da.

**19:30:** Bizikleta martxea, *Kotxerik barik hobe lelopean*.

**21:30:** Herri afaria, Kafe antzokian

**22:30:** Bertsolariak, txalapartariak... eta Perro flauta taldearen kontzertua, dohainik, hori be Kafe antzokian.

ta lantzeko baino zeozer gehiagorako izan beharko leuke». Horren haritik, gogora ekarri eban «urtean zehar ezer gitxi egin izan» dala trafikoaren arazoari urtenbidea emon ahal izateko; bidegorrien kasuan, esate baterako, plangintzea eginda dago, eta bihar bidegorri erdi baino ez dabe inaugurako gure agintariek, besterik ez dabe egin eta». Bilboko Udalak eginikoa gitxi bada, Barcenak azpimarratu gura izan eban «Aldundiak are gitxiago» egin izan dauela. «Bizkaian dagoan bidegorri ganorazko bakarra konpontzeko milioi gitxi batzuk baino ez ditu erabili».

Ekologistak Martxan taldeko kideek atzo emondako datuen arabera, «Bilbon egiten diran bidaia guztien %25 baino ez dira auto pribauan egiten, eta kontuan izan behar da bilbotarren erdiak ez daukala autorik». Horri kontrajarririk, «uriaren heren bi hartzen ditu autoak». Datuak 1999an Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko ikerketa batekoak dira, baina «ez dira ia aldatu», zehaztu eban Barcenak.

Ekologistak Martxan taldeko Jon Torrek, bere aldetik, adierazo eban «zigor neurriak hartu beharko» litzatekezala, «urien autorik ez erabilteko». Izan be, Torrek azpimarratu gura izan eban «Bilbok, Euskal Herriko uririk handienak, gaur egun daukan ingurumen arazo larriena trafikoa eragiten dauen kutsadurea da».

## JARDUNALDIA

### Alzheimer gaixoendako terapia aukera barriez jardungo dabe, Bilbon

Mikel Basabe |

Alzheimerre daukien gaixoen senideen alkarteak antolatuturik, gaixo horretan aditu diran lagunak batzarturik dagoz, Bilbon, gaixoen psikoestimulazioak emoten dituan aukerez berba egiteko.

Jardunaldiak atzo hasi ziran, eta gaur arratsaldeko 19:00etan egingo dan berbaldiagaz amaituko dira. Egitarauaren ardatz, gaixoen psikoestimulazioa eta horrek emoten dituan aukerak dagoz. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Bizkaiko Foru Aldundiak Maria Diaz de Haro kaleko 11 zenbakian daukan aretoan, Blanca Cadena psikologoak eta Maiteder Lertxundi eta Arantza Muñoz musikoterapeutek egingo dabe berba.

Atzoko saioan, ostera, estimulazio kognitiboren alorrean teknologia barriek emoten dituan aukerez egin eben berba Stefania Clerici, Magdalena Torres eta Rafael Sanchezek. Izan be, interneten bitartez, estimulaziorako erabilten diran fitxak edonoren eskura ipini barri ditue. Gaixo bakoak beren beregi egoki dituan fitxak jasoten ditu, eta lagunztaile batez egiten dau behar, egoitza baten egon barik be.

Beste alde batetik, gogoratzeko da bihar, hilaren 21ean, Alzheimerrearen nazinoarteko eguna egingo dala. Basauriko Social antzokian, arratsaldeko 18:30ean, antzerki saioa egingo da: *Aitita mutua*ren jaia lana taularatuko dau T'Omblijo antzerki taldeak.

## ESTETIKA ETA ILEAPINTZEA

**CEM**

- Orduetegi eta txanda malguak
- Ikasi lehen egunetik praktikatu

☎ 94 423 66 38

Berastegi, 5 - 4. - 48001 BILBO  
Abando Metroaren ondoan